

BIZI TESTAMENDUA

(Aurretiazko Borondateen Dokumentua)

Nik, _____, adinez nagusia, (jaioteguna ____ / ____ / ____)
NAN/pasaporte/AIZzk.: _____; kalea: _____; zb _____;
eta hauxe helbidea _____,
udalerria: _____; P.K. _____; Probintzia: _____;

Erabakia libre hartzeko gaitasunez, eta gogoeta egiteko aski informazioa dudala, etorkizunean **neure osasuna berreskuratu ezin den punturaino hondatzen bada**, halako neurrian, non ez dudan ahalmenik izango **eutanasia eskatu ahal izateko** eta jaso nahi ditudan zainketei eta tratamenduari buruzko **adostasun aske, borondatezkoa eta kontzientea** emateko, **adierazten dut** neuretzat **on handiena dela neure bizitza lehenbailehen amaitzea**, aurretiko jarraibide, aurretiazko borondate edo bizi-testamentu honen arabera:

1. Eskatzen dut **neure bizitzari eutanasiaren bidez lehenbailehen amaiera ematea**.
2. **Hainbat pairamen larri kroniko eta ezintasun-sortzaile sufrimendu fisiko edo psikiko etengabe eta onartezintzat jotzen ditut eta, hortaz, neure duintasun pertsonalarekin bateraezinak**. Horrela jotzen ditut gaixotasun neurodegeneratiboak (Alzheimer motako dementzia eta antzekoak), **non neure nortasuna eta adimen-ahalmenak hondatuko baitira** neure gaixotasunaz eta neure balio-eskemaz jabetzeko gai ez izateraino.
Horregatik, nahiz eta nik ez adierazi, ez gogoratu edo beste pertsona batzuen iritziz kanpo aldera sufrimendu zantzurik ez erakutsi, jarraian aipatzen ditudan egoeretan neure bizitza **eutanasiaren bidez** lehenbailehen amaitzeko borondatea errespetatzea nahi dut: **neure buruaz baliatzeko gauza ez izatea, neure senide edo hurbilekoak ez ezagutzea edo dementzia moderatuaren (GDS 5 FAST Reisberg eskalan) pareko egoera klinikora iristea**.
3. Eutanasia-eskaeraren kudeaketak hartzen duen epean, edo eskaera ukatuz gero, **uko egiten diot** bizitza iraunarazten lagunduko luketen **bizi-euskarri**, tratamendu, edo esku-hartze nahiz **prozedura orori** (antibiotikoak, fluido bidezko nutrizio hidratazioa, zunda nasogastrikoa edo gastrostomia, taupada-markagailua edo desfibriladorea, etab.) Orobat eskatzen dut nire **sufrimendua arindu dezatela** dauden bitarteko guztiak erabiliz, eta gaixotasun aurreratu edo terminaleko egoeran aurkituko banintz, **sedazio aringarri** sakona eskatzen dut, nire heriotzara arte mantendua.
Zalantzarik badago neure erabakitzeke egitatezko ezintasun-egoera **atzeraezina ote den**, argi utzi nahi dut egoera horrek ez duela aldarazten eguneroko jardueretarako beste pertsona batzuen mende egongo den bizitza ez jasateko nire erabaki irmoa.
4. Osasun-arloko profesionalen bat jarraibide hauetakoren baten kontzientzia-objektore deklaratu baltz, haren ordeztasun profesional bat izendatzea nahi dut, nire bizitzaz eta heriotzaz askatasunez erabaki dudana berma dadin.

ORDEZKARI IZENDATZEA (AUKERAKOA)

ESLEITZEN DUT nire ordezkaria izateko:

Izen-abizenak: _____

Nortasun agiria: NANA PASAPORTEA AIZ Zk.: _____

Helbidea: _____

Udalerria: _____ P.K.: _____ Probintzia: _____

Telefona/k: _____ / _____ E-posta: _____

Signadura: _____

ORDEZKARIA

TESTAMENTU-EGILEAREN SINADURA

Nortasun agiria: NANA PASAPORTEA AIZ, zenbakia: _____ Jn./And.
_____ (e)n. 20 _____ (e)ko _____ aren _____ (e)an

Sinadura: _____

ONARTZEN dut izendapena eta ordezkari izatearekin ados nago. Ordezkatzen dudan pertsonak dokumentu honetan emandako jarraibideak ulertzen ditut eta horiekin ados nago. Ulertzen dut nire ordezkari hau indarrean egonen dela dokumentu hau osotasunean edo niri dagokidan zatian bertan behera geratzen ez den bitartean.